

MUGATUA ETA MUGAGABEA

Definizioak lausoegi ematen dira, eta ikasle askok ez du zalantzak saihesteko modurik.

“Mugatua pertsona edo gauza jakin edo ezaguna da; mugagabea, pertsona edo gauza ezezagun edo indefinitua da.”

Azter ditzagun, hala ere, hurrengo bi perpausak:

hiru iralasleak (Ainhoa, Josemi eta Marie) **saritu dira**

hiru irakasle (Ainhoa, Josemi eta Marie) **saritu dira**

1. perpausako **hiru irakasleak** sintagma mugatua da, baina entzuleak, kanpoko kazetari batek, ez du irakaslerik ezagutzen; mugatua da, baina irakasleak ezezagunak dira.

2. perpausako **hiru irakasle** sintagma mugagabea da, baina entzuleak, ikastolako garbitzaileak, badaki hirurak zein diren; mugagabea da, baina irakasleak ezagunak dira.

Hori dela eta, benetako bereizkuntza hauxe da:

hiru irakasleak guztiak dira, ikastolako guztiak edo lehenago aipatutako guztiak: mugatua.

hiru irakasle ez dira guztiak, ikastolan irakasle gehiago da edo lehenago aipatuak gehiago dira: mugagabea.

Gasteiz, 2011ko abuztuaren 3a
Fontaneda Gontzal